GERNIKA-LUMOKO ENPRESETAN, MERKATARITZAN ETA ELKARTEETAN "HITZARGUNE KANPAINA" GARATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA

1. XEDE OROKORRA:

Merkataritza/ostalaritza sektoreei, enpresa txiki eta ertainei eta elkarteen eremuari zuzendutako HITZARGUNE kanpaina gauzatzea. Kanpaina horren helburua da horietan euskararen erabilera normalizatzea.

2. HELBURU ZEHATZAK:

Gernika-Lumoko Udalak 2024-2027 aldirako Euskararen Plan Estrategikoa onartu zuen 2013ko azaroaren 29an (ESEP: Euskara Sustatzeko Ekintza Plana), eta 2025eko kudeaketa plana ere bai. Plan horren barruan merkataritza, enpresa eta elkarte mundura bideratutako helburu, neurri eta ekintzak planteatu dira. Beraz, 2025eko Kudeaketa Planak xehetasunez jasotzen ditu "HITZARGUNE" proiektuarekin lotutako gai hauek:

- ***Helburu estrategikoa 2***.- *Euskararen erabilera: euskara sustatzea gizarteko zerbitzuetan orokorrean.*

6.- Eremu sozio-ekonomikoa.

6.1.- Euskara-planak zabaltzeko eta dirulaguntzen sistema etengabe hobetzeko babesa eta laguntzak eskaintzen jarraitzea (toki-erakundeak).

6.1.3.2.- Ezagutzera eman euskararen erabilera normalizatzeko udalean bertan eta beste erakundeetan eskaintzen diren aukera eta programak: diru-laguntzak, laguntza teknikoa (HITZARGUNE)

6.1.4.1.- HITZARGUNE kanpaina garatu enpresa txiki eta ertainetan (laguntza teknikoa, aholkularitza, Euskara planak…). DAGOENA ABERASTU- "Hitzargune" kanpaina indartu

6.1.4.2.- HITZARGUNE kanpaina garatu merkataritza eta ostalaritza arloan (diagnostikoa, laguntza teknikoa, aholkularitza…)

6.1.4.3.- Bai Euskarari Ziurtagiriaren elkartearekin hitzarmena sinatu elkarlanerako Hitzarmena

6.3. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeko neurriak hartzea

6.3.2.1.- Kontsumitzaileen hizkuntza eskubideen eta enpresarien/merkatarien hizkuntza betebeharren inguruko kanpaina

6.4. Enpresen jardunean hizkuntza-irizpideak ezartzeko pausoak ematea

6.4.2.1.- Enpresetako erabilera planetan edo mikroplanetan hizkuntza irizpide minimo batzuk finkatzea...HITZARGUNE

6.4.2.2.- Hizkuntza paisaia bereziki landu Hitzargune programaren bidez, enpresen datu-basea eguneratuta

6.8. Euskara enpresa munduan erabiltzeari prestigioa ematea

6.8.1.1.- Banan-banako elkarrizketak egin merkatari eta ostalariekin paisaia linguistikoak euskararen erabileran duen eraginaz, batik bat zabaltzen diren lokal berrien kasuan (hitzarmengintza, merkataritza eta ostalaritza).

6.8.1.2.- Ereduzko enpresen kasuak aurkeztu besteak erakartzeko (Maier, Gernika Gabiketak, Ekin Autoak, Torrezuri,..) HITZARGUNE

7.- Eremua: Aisia eta kirola

7.8. Kirolaren esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera sendotzea

7.8.2.2.- Hitzarmena sinatu herriko Klub eta kirol taldeekin, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko… HITZARGUNE kirola

7.8.2.3.- Kirol arloko ahozko erabileraren diagnostikoa egin eta Kirol patronatuarekin elkarlanean aritu erabilera areagotzeko ….HITZARGUNE ("JOKATU" programa.
7.8.2.4.- Eskola kirolaren eta kirol elkarteen helburuak partekatzeko udalerrian sortu den dinamika sendotu (Udal Eskola Kontseilua bitarteko).
7.8.3.1.- Informazioa eman herritarrei eta elkarteei kirol eskaintzaz eta kirolari buruz euskaraz sortutako materialaz…HITZARGUNE / DAGOENA ABERASTU- Kirol arloko lanketa zabaldu (kirol-praktikarekin lotutako erakunde, enpresa eta sistema guztiak kontuan hartu…
7.9. Euskal herritarrentzat kirolaren eremuan erakargarriak diren jarduera, ekintza eta zaletasunetan euskarazko eskaintza areagotzea eta horren eskaera sustatzea
7.9.2.4.- Jendaurreko kirol jardueretan euskararen presentzia bultzatu (futbol zelaian, saskibaloi kantxan, pilotalekuan...) kartelak, megafonia, esatariak... HITZARGUNE kirola

10.- Publizitatea
10.3. Euskarazko publizitatearen merkatua prestigiatzea iragarleen artean (Toki erakundeak)
10.3.2.1.- Enpresa, merkatari eta elkarteei laguntza teknikoa eskaini publizitatea euskaraz egin dezaten: itzulpenak,… HITZARGUNE
10.4. Erakundeek euskarazko publizitatearen sortzaileekin batera elkarlanean jardutea
10.4. 2.1.- Enpresa, merkatari eta elkarteei zuzendutako sentsibilizazio ekintzak martxan jarri publizitatean euskararen erabilera bultzatzeko (Berripapera/HITZARGUNE)

12.- Hedabideak
12.7. Hedabideetako hizkuntzaren kalitatea bermatzea
12.7.1.1.- Aldaba aldizkariarekin elkarlana sustatu, euskararen presentzia areagotzeko bideak jorratuz…HITZARGUNE

- ***Helburu estrategikoa.- Helburu estrategiko guztien zeharkako eremuak.***

14.- Eremua: Sentsibilizazioa eta motibazioa.
14.6. Arlo sozioekonomikoa
14.6.3.2.- (BERRIA) Merkataritzan sare sozialak, eta instagram bereziki, euskaraz erabiliak izan daitezen bultzatu eta segimendu berezia egin HITZARGUNE kanpainaren bitartez.
14.7. Aisia eta kirola
14.7.1.1.- Laguntza teknikoa eskaini, erlijio saioetako materialaren itzulpenerako eta testuak kalitatezkoak direla bermatzeko… HITZARGUNE-elkarteak.
14.7.1.2.- Hitzarmena sinatu aisialdi taldeekin (kirola, kultura, aisia), euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko (HITZARGUNE kanpaina elkarteekin)
14.9. Kulturgintza
14.9.1.1.- Herriko kultur elkarteekin hitzarmenak sinatu, haietan euskararen erabilera sustatzeko (HITZARGUNE / kultura)

3. LANAREN EZAUGARRIAK:

Prestazioak honako argibide hauen arabera gauzatuko dira:

- Urtean bisita bat egitea Hitzargune (310) kanpainan hitzartutako eragileei, kanpainaren jarraipena egiteko eta erakunde horiek hartutako konpromisoak betetzen diren baloratzeko.

Gaur egungo kide kopurua		Bisitatu beharreko gutxieneko kopuruak	
Enpresa txiki eta ertainak	51	Enpresa txiki eta ertainak	35

Merkataritza-establezimenduak	200	Merkataritza-establezimenduak	100
Elkarteak	59	Elkarteak	40
guztira	**310**	**guztira**	**175**

- Hitzargune hitzarmena sinatzeko erakunde berriak erakartzeko lana eta horien egoera soziolinguistikoaren diagnostikoa (gaitasunak eta gabeziak).

- Hizkuntza-helburuak zehaztea eta urteko konpromisoak adostea Gernika-Lumoko Udalarekin lankidetza-hitzarmena sinatu duten entitateekin (saltokiak, ostalaritza, enpresa txikiak, elkarteak), beren jardueran euskararen erabilera normalizatzeko.

- Hitzartutakoei zerbitzuak eskaintzea: testuak gaztelaniatik euskarara itzultzea, kartel txiki plastifikatuak, hitzartutakoari aplikatutako euskarazko baliabide teknikoei buruzko aholkularitza, enpresa txikietan euskara erabiltzeko mikroplanak (dokumentuen estandarizazioa, giltzarri-postuetan euskara ikastea erraztea, enpresaren dinamikari hizkuntza-irizpideak aplikatzea).

- Segimendu-sistema bat ezartzea, etengabeko ebaluazioarekin (bisitak, jarraipen-fitxak, etab.), sinatutako hitzarmena duten saltoki, ostalaritza-establezimendu, enpresa txiki eta elkarteentzat. Gaur egun dauden akordioen kopurua kontuan hartzeko, 310):

Gaur egungo kide kopurua		**Bisitatu beharreko gutxieneko kopuruak**	
Enpresa txiki eta ertainak	51	Enpresa txiki eta ertainak	35
Merkataritza-establezimenduak	200	Merkataritza-establezimenduak	100
Elkarteak	59	Elkarteak	40
guztira	**310**	**guztira**	**175**

- Hitzargune kanpainaren urteko komunikazio-plana egitea eta gauzatzea (sare sozialak, bi artikulu komunikabideetan, eta ”Hitzargune” fanzinea egitea).

- Lan-metodologiari dagokionez, ezartzen da zerbitzua ematera bideratutako baliabide pertsonalek, ahal dela, aurrez aurre jardungo dutela hitzartutakoekin, zerbitzu pertsonalizatuarekin.

- Enpresa esleipendunak Udaleko Euskara Zerbitzuaren zuzendaritzapean jardungo du, eta koordinazioa Euskara Zerbitzuko euskara dinamizatzaileak egingo du. Hiru hilean behin egingo dira bilerak, eta bertan parte hartuko dute Euskara Zerbitzuko Normalkuntza teknikariak, Euskara Dinamizatzaileak eta enpresa esleipendunaren ordezkariak.

- Kontratuak 36 hilabeteko iraupena izango du, dagokion administrazio-kontratua sinatzen denean hasi eta 12 hilabeteko luzapena izateko aukerarekin.

4.-ADJUDIKAZIORAKO PROZEDURA ETA IRIZPIDEAK

Kontratua esleitzeko ezarritako adjudikazio-irizpideak kontratuaren xedearekin eta eman beharreko prestazioekin bat datoz. Beraz, prestazioen kalitatea sarituko da, eta 100 puntutik 25 emango zaizkie automatikoki ebaluatu ezin diren irizpideei, eta automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideei 75 puntu.

A) **Formula bidez baloratzekoak ez diren irizpideak**: gehien jota 25 puntu, aurkeztuko den txosten baten arabera baloratuko direnak. Txosten horretan jaso beharko dira hurrengo atalak eta bakoitzari emango zaizkio aipatzen diren gehienezko puntuak:

Baloratzekoak diren atalak	**Puntuak gehienez**
- Planteatutako lan-egitasmoa noraino egokitzen zaio kontratuaren xedeari (udalerriko errealitate soziolinguistikoaren ezagutza, lan-sistemarako estrategiak, ebaluazio kualitatiborako eta kuantitatiborako erramintak…)	7 puntu
- Enpresak jarriko dituen giza-baliabideak (esperientzia eta titulazioa)	5 puntu
- Lanean arituko den pertsonalaren dedikazioa (astean zenbat ordu)	7 puntu
- Kontratuaren helbururako erabiliko diren teknologia baliabideak (informatikoak) eta material baliabideak	4 puntu
- Komunikazio plana (komunikabideetarako artikuluak, prentsaurrekoak, sare sozialak, "Hitzargune" aldizkaritxoa)	2 puntu

B) Automatikoki ebaluatzeko irizpideak: 75 puntu gehienez, hiru bloketan banatuta:

B.-1) Eskaintza ekonomikoari gehienez 40 puntu emango zaizkio, formula matematiko honen arabera:

$$\text{Ebaluatutako eskaintzari puntuak} = 40 - \frac{\text{Ebaluatutako eskaintza} - \text{Eskaintzarik merkeena}}{\text{Lizitazio mota}} \times 100$$

Aurkeztutako eskaintzen arteko aldeak nabarmen arinduko dituen formula bat erabiltzea erabaki da; horrela, faktore ekonomikoa ez da adjudikazio-irizpide erabakigarria, eta enpresa lizitatzaileei helarazi zaie zerbitzuak ematearen kalitateari buruzko faktoreei garrantzi nagusia ematen dieten proiektuak eskaintzeko ahalegina.

B-2) Gehienez 10 puntu, prestazioari buruzko txostenak aurkezteko konpromisoa kontuan hartuta emango direnak (azken txostena hasi eta 36 hilabetera aurkezteko betebeharra alde batera utzita), zerbitzuaren kalitatearekin lotuta:

Txostena aurkeztea kontratua hasi eta 24 hilabetera	3 puntu
Urteko txostena aurkeztea, 12 hilean behin, kontratua hasten denetik	7 puntu

B-3) Gehienez 25 puntu, bloke bakoitzerako ezarritako gutxieneko kopurua gainditzeagatik proposatzen den bisita kopuruagatik. Bisita bakoitzagatik emango den puntuazioa:

Enpresa txiki eta ertainak (gutxienekoa 35)	puntu 1
Merkataritza establezimenduak (gutxienekoa 100)	0,5 puntu
Elkarteak (gutxienekoa 40)	puntu 1

Ez zaio punturik emango lizitazioaren oinarri den aurrekontua berdintzen duen eskaintzari.

5.- KONTRATUAREN PREZIOA ETA ORDAINTZEKO MODUA

Kontratua burutzeko finkaturiko gehienezko aurrekontuari eutsiz, zerbitzu kontratu honen prezioa 55.200 € gehi BEZ da.

Lizitatzaileek euren eskaintzak egiterakoan merkeagotu dezakete prezio hori, kopuru zehatz bat adieraziz.

Burutuko diren lanak ordaintzeko, kontratistak faktura bat aurkeztuko du hilabete bakoitza igarotakoan, dagokion BEZ gehituta. Faktura horren zenbatekoa kalkulatzeko, honako formula erabiliko da:

$$\text{Hileroko faktura} = \frac{\text{Adjudikazioaren prezio osoa}}{\text{Kontratuaren iraupen aldiko hilabete kopurua}}$$

ESTIÑE
ASTORKIA
KORTABITART
E - 30684941C
2025.09.29
15:04:00
+02'00'

ALKATEA
Jose Maria Gorroño Etxebarrieta

Euskara dinamizatzailea
Estiñe Astorkia Kortabitarte